

2020ko MEMORIA

**Erbeste izan ginen,
izan gaitezen babes**



CEA(R) EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea

www.cear-euskadi.org

Zifrak



868 pertsona aholkatu ditu gure lantalde juridikoak.



325 pertsona hartu ditugu gure zentro eta pisuetan.



457 pertsona artatu ditu gizarteratze lantaldeak.



Bakarrik dauden **257** gazte artatu ditugu Hemen programan.



Eraberean sarearen esparruan arraza-diskriminazioko **19** kasu artatu dira.



Giza eskubideen **3** defendatzaile hartu dira harreran.



200 pertsonak baino gehiagok eman dute izena "Bizitzeko ihes egin" kongresu birtualean.



1.000 pertsona baino gehiago mobilizatu ziren ekainaren 20ko manifestazioetan.



8.500 jarraitzaile ditugu sare sozialetan.

Javier Galparsoro CEAR-Euskadiko presidentearen gutuna

2020. urtean zehar atzeraelikatu egin dira COVID-19aren pandemia eta desplazamendu behartuak eragiten dituzten mundu-mailako gatazkak. Osasun-krisialdiak ez du indarkeria eten; aitzitik, areagotu egin dira jazarpenak eta giza eskubideen urraketak.

Errefuxiatuen kopurua 82 milioira igo da. Munduko leku askotan areagotu egin dira gatazkak eta pobrezia, muga itxieraren ondorioz. Egoera horren eraginez, pertsona askok ezin izan dute bakean bizitzeko leku segururik topatu.

Gogorarazi behar dugu 97 pertsonatik batek desplazatu egin behar izan duela; hortaz, pandemia ezin da aitzakia izan beharrezko babesa lortzeko bidean blokeatuta geratu diren milaka pertsonari asilo-eskubidea ez bermatzeko.

COVID-19ak soilik birusaren hedapenean berdindu du gizateria, unibertsa izan baita, baina ez erantzunean, ezta ondorioetan ere. Nagusi izan dira muga itxiera masiboa, errefuxiatuen kanpalekuetako baldintza tamalgarriak eta zirkulazio-askatasuna bermatzen duten ebazpen judizialen urraketa.

Giza eskubideei ezin zaie berrogeialdirik ezarri. “Normaltasun berriak” pixkanaka berriro ere mugak irekitzea ekarri behar du, baita muga mentalak ere. Mekanismo malguagoa ezarri behar da, bermatu dadin onartu eta aitortu egingo dela gosetik,

2020ko memoria

miseriatik, giza eskubideen urraketetatik eta jazarpenetik ihes egiten duten pertsonak babestea.

Bitartean, CEAR-Euskaditik lanean jarraituko dugu toki seguruetara iristea lortu duten pertsonak beren bizitzak berregin ditzaten. Erbeste izan ginen. Izan gaitezen babes.

*Javier Galparsoro
CEAR-Euskadiko presidentea*



Nor gara?

25 urtek bermatzen gaituzte **erreferentziatzko erakunde gisa EAEn**, gizaki orok nazioarteko babesa bilatzeko duen eskubidea aitortzeko borrokan. CEAR-Euskadin **errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak** defendatzen ditugu, eta euren garapena sustatzen dugu harrera egiten dien jendarte berrian.

Misioa, bisioa eta balioak

Gure misioa da nazioarteko babesa behar duten eta/edo bazterkeria arriskuan dauden errefuxiatuen, desplazatuena, aberrigabeen eta migratzaileen giza eskubideak eta garapen integrala defendatzea eta sustatzea.

Gure antolakundea osatzen duten pertsona guztiak elkarlanean aritzen dira, ikuspegi jakin batekin:

CEAR-Euskadi aldaketarako eta eraldaketarako eragile gisa sendotuko da, jendarte jasangarri, bidezko eta diskriminaziorik gabeko baterantz, oinarri hartuta aukera-berdintasuna eta nortasun indibidual eta kolektiboarekiko errespetua, eta, horretarako, integrazio sozial, kultural, laboral eta politikoko prozesuen saretzeak kudeatuko ditu, hainbat interes-taldek elkarrekin parte hartzen dutelarik.

Hauek dira antolakunde gisa ordezkatzeko gaituzten **balioak**:

Justizia

Justizia da CEAR-Euskadiren funtsezko balioa. Errefuxiatuen, migratzaileen eta aberrigabeen eskubideen defentsa gisa ulertzen dugu, eta, feminismitik, ekologismitik eta birbanaketatik, indarkeriarik eta miseriarik gabeko planetaren eta bizitzeko jasagarritasuna bilatzen dugu. Justizia ekitatiboa, aniztasun indibidual eta kolektiboak errespetatzen eta balioesten dituen, askatasunez aukeratzeko eskubidea oinarri, diskriminaziorik gabe.

Konpromiso aktiboa

Gure misioarekiko konpromisoa justiziarekiko inplikazio aktiboa da, maila lokalean eta globalean, beste pertsona, kolektibo eta eragile batzuekin batera. Horretarako, antolakundeko kideen eta gure inguruan dauden pertsona eta eragileen parte-hartze soziala eta aktibismoa sustatzen ditugu.

Kudeaketa arduratsua

Kudeaketa arduratsuarekin konprometituta garatzen dugu gure lana: pertsonen kudeaketa ekitatiboa, oinarri duena CEAR-Euskadiko kide garenon eta harremanak ditugunon erantzunkidetasuna, leialtasuna, konfiantza eta zaintza; eta baliabideen kudeaketa independentea, jasagarria, gardena eta eraginkorra.

Erbeste izan ginen, izan gaitezen babes



2030 Agenda

2030 Agendak desplazamendu behartuak aipatzea saihesten du neurri handi batean, haiei buruzko aipamen esplizitu gutxi baititu. Aipamen argiena 10.7 helburuan ezartzen da: “Migrazioa eta pertsonen mugikortasun ordenatua, segurua, erregularra eta arduratsua erraztea, are migrazio-politika planifikatuak eta ondo kudeatuak aplikatuz ere”.


Komeniko zatekeen arren Agendak giza mugikortasuna eta garapen jasagarria modu zuzenagoan lotzea, ez dugu ahaztu behar haren ikuspegi globala “inor atzean ez uztea” dela. Eta hori ezinezkoa litzateke errefuxiatuak eta behartutako desplazatuak kontuan hartu gabe.

Hortik abiatuta, txalotu egiten dugu Migratzaileen Giza Eskubideei buruzko Errelatore Bereziak egindako proposamena 2030 Agendaren osagarri den agenda bat egiteko, Nazio Batuen esparruan. Giza mugikortasuna errazteko 2035 Agenda izenaz ezaguna, zortzi helburu biltzen ditu, 2030 Agendaren 8.8 eta 10.7 helburuetan oinarritutakoak, migratzaile guztien giza mugikortasuna eta giza eskubideen errespetua errazteko. 2030 Agendaren oinarria Migrazioen eta Babesaren Munduko Itunak ere badira.


GIHen ikuspegi zabalago hori oinarri sendoa da botere publikoek konpromiso handiagoa har dezaten migratzera behartuta dauden pertsonetikiko. Eta, era berean, Garapen Iraunkorrerako Helburuek, beste arlo askoren artean, iraunkortasuna edo berdintasuna bezalako gaietan aurrera egiten lagunduko diguten mekanismoak martxan jartzeko eskatzen digute antolakunde gisa. Eta hori guztia, aliantza-esparru batean, kolektiboki eraikitako agenda eraldatzaileekin, desparekotasunak murriztu ahal izateko.

Giza lantaldea

CEAR-Euskadiko giza lantaldea soldatapeko langileek, bazkideek eta boluntarioek osatzen dute.



Hona hemen gure organigrama:



Nola egiten dugu lan?

Banakako arreta

Pertsona bakoitzarekin lan egiten dugu, norberaren garapen integrala sustatzeko. Haiek guztiak, berreraikitzen ari diren bizitza berrian, beren prozesuen protagonista izan daitezen sustatzen dugu.



Plan Estrategikoa

Hamarkada aldaketarekin hasi den IV. Plan Estrategikoari ekin diogu. Honako hauek dira gure egunerokoan mugiarazten gaituzten helburu nagusiak:

- Etorकिन, errefuxiatuen eta aberrigabeen garapen integrala.
- Beren eskubideak eta nazioarteko babesaren defendatzea eta kulturarteko bizikidetzaren sustatzea.
- Antolakuntza sendoa, ekitatiboa eta jasangarria.

Deskargatu [HEMEN](#) gure Plan Estrategikoa.

Lan-ikuspegiak

Ikuspegi hauetatik lan egiten dugu:

Feminista, interseksionala, psikosoziala, kulturartekoa eta giza eskubideen aldekoa.





Ekitatearen Aldeko Plana eta Berdintasun Batzordea

Gure ustez, antolakundeak ez dira neutroak generoari dagokionez, baldintzatu egiten dituztelako jendartean indarrean dauden balioek, alegia, botere-egitura nagusiek eta emakumeak zapaltzen dituen desparekotasun-sistema heteropatriarkalak.

Horregatik, Ekitatearen Aldeko Ekintza Plan bat daukagu, plangintza estrategikoaren parte dena, eta **2012. urtetik Emakunderen Lankidetzaren Erakundeak** gara.

Berdintasun Batzorde bat ere badugu, antolakundearen hainbat arlotako langileek osatua, plan hori gauzatzea gidatzen duena.

2020an, COVID-19aren pandemia hasi baino egun batzuk lehenago, eta martxoaren 8aren harira, Emakumeen Nazioarteko Eguna zela eta, CEAR-Euskadiko Berdintasun Batzordeak SETEMen *Fabricando Mujeres* dokumentalaren proiektioa antolatu zuen. Ekimena Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan antolatu zen, eta soldatapeko langileak zein boluntarioak gonbidatuak izan ziren parte hartzera. Gainera, azaroaren 25aren harira, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna, Batzordeak barne-mailako hitzaldi bat egin zuen (boluntarioentzat eta soldatapekoentzat), eta, elkarrizketen bidez, Erdialdeko Amerikan krimen antolatuak emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen aurka eragindako indarkeria jorratu zituen. Indarkeria matxistaren ondorioz ihes egin behar izan zuen Peruko emakume batek ere parte hartu zuen, arrazoi horregatik errefuxiatu estatutua eskuratu duena.

Sare lana


Gaur egun, honako lan-sare hauetan parte hartzen dugu:

- EAPN
- Ecosistema
- Gizardatz
- Beste Bi Plataforma
- Red Familia
- Ecosistema
- Errefuxiatuen tokiko maila Gasteizko Udala
- Etorkinak Gizartean Integratzeko eta Parte Hartzeko Euskadiko Foroa
- GLEAko kontseilu errektorea
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua
- Euskadiko Etorkinei laguntza emateko GKE-en koordinakundea (Harresiak Apurtuz)
- Eraberean. Tratu berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea
- Boluntarioratzako foroak (Bolunta, Gizalde, Batekin...)
- Emakumeen eta nesken sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako Koordinazio Mahaia
- Gazteizen alokairua eskuratzean dagoen diskriminazioaren aurkako plataforma
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia
- Arabako Tipi-Tapa gaztelania sarea
- Sareak Josten / Tejiendo Redes
- ZAS. Zurrumurruen Aurkako Sarea
- Europar Batasunaren aldi batez birkokatzeko plataforma (EUTPR), Protect Defenders-ena
- RED Defensoras sarea. Espainiako Estatuko Babes Programen Sarea
- Kolektiba Colombia
- Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Kontseilua
- Gasteizko Udalaren Bizikidetzeta eta Aniztasun Elkargunea
- Somos Diversxs plataforma

Kontuak argi

2020ko diru-sarrerak

Diru-sarrerak: 2.806.147 €




FINANTZATZAILEEN BIDEZKO
DIRU-SARRERAK

- Beste erakunde publiko batzuk
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Eusko Jaurlaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia
- Fundazio pribatuak
- Bazkideen kuotak, dohaintzak eta ekitaldiak
- Bestelakoak


2020ko gastuak

Gastuak: 2.767.790 €

- Kudeaketa
- Esku hartzea
- Eragina eta gizarte partaidetza



GASTUEN BANAKETA


 **PKF Attest** enpresak urtero egiten digu kontu-ikuskaritza. Urteko txosten ekonomikoak hemen kontsultatu ditzakezu: <https://www.cear-euskadi.org/eu/nor-gara/kontuak-argi/>

2020ko memoria

Gure finantzatzaileak



Gure laguntzaileak



Unean uneko kolaborazioak

James Room and Weird Antiqua taldearen kontzertua

[James Rooms & Weird Antiqua](#) rock taldeak CEAR-Euskadiren aldeko [Morning Train](#) singlea aurkeztu zuen [Band Camp plataforman eskuragarri dagoena](#), Salmenten etekin guztiak antolakundera bideratu ziren.



Fair Saturday

Azaroko azken larunbatero bezala, bat egin genuen Fair Saturday jaialdiarekin, artea eta kultura giza eskubideen defentsaren eta errefuxiatu, aberrigabe eta egoera zaurgarrian dauden migratzaileen garapen integralaren alde jartzeko. COVID-19a dela eta, aurtengo jarduerak *streaming* bidez egin ziren. Kasu honetan, Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Blue Hole eta Elpuntomuerto taldeek kontzertuak eskaini zituzten CEAR-Euskadiren alde.

- [Bilboko Orkestra Sinfonikoak interpretatutako Beethovenen 4. sinfoniaren 360°-ko emisioa.](#)
- [BLUE HOLE taldearen kontzertua](#)
- [Elpuntomuerto taldearen kontzertua](#) – abestia: Chernobyl



2020ko mugarri nagusiak

Esku hartzea

Harrera

Gainerako jardueretan bezala, COVID-19aren pandemiak baldintzatu egin du 2020. urtea CEAR-Euskadiren hainbat programetako harrera-etxe eta zentroetan: Larraña Etxea (Oñati, 100 lagunentzako edukiera), Zuloaga Txiki (Tolosa, 35 lagunentzako edukiera) eta Harrera programa (Bilbo, 4 etxebizitza, 24 lagunentzako edukiera).

Krisi honen ondorio negatiboek bereziki egoera zaugarrian dauden biztanleei eragiten badiete ere (egoera horretan etorkin asko daude), krisialdi honetan ikusi da, halaber, segurtasuna eta babes oso garrantzitsuak direla hainbat gunetan, hala nola zentroetan, pisuetan eta pertsonen laguntzen jarraitu duten profesional-taldeetan.

Martxoaz geroztik, Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuen laguntzari esker, ez dugu faltan izan norbera babesteko ekipamendurik, ezta gel hidroalkoholikorik ere. Osakidetzaren eskutik osasun-protokoloak abiarazi dira, eta lan-sare berriak sortu dira informazio-fluxua errazteko. Gainera, lantaldeek lan egiteko formula berriak bilatu dituzte, mugikortasuna mugatu izan den uneetan hain beharrezkoak izan diren prestakuntza-tailerrak, gaztelania eskolak edo aisialdiko jarduerak ez eteteko.





Arrakala digitalaren errealitateari sakonago heldu behar zaio, baina urrats handiak egin ditugu gure zentroetan inor kanpoan gera ez dadin. Harrera programako pisuetan, ordura arte Interneterako sarbiderik ez zutenetan instalazioak egin genituen, egoiliarren eta senideen arteko harremana errazteko. Beste sare eta antolakunde batzuek, hala nola Helduen Hezkuntzak (HHE), gaztelaniaren ikaskuntza babestu zuten uneoro. Reciclanetek hainbat ordenagailu eman zizkion CEAR-Euskadiri, pisuak eta zentroak hornitzeko. Eskolatutako adingabeek irakasleen laguntza izan dute telefono, tablet eta ordenagailuen bidez ikasturtea jarraitzeko. Egoiliarrek eurek emandako tailerren proposamenak ere ez dira falta izan, eta guneak sortu dira bizikidetzarako eta elkarlaguntzarako.

Oro har, mugen itxierak eta mugitzeko ezintasunak mugatu egin zituen sarbiderako eta asiloa eskatzeko aukera, eta horren ondorioz ere harrera-zentroetan okupazioa txikiagoa izan zen. Hala eta guztiz ere, iritsi zirenak, maiz alarma-egoeragatik desorientatuta eta baldintza bereziki zaurgarrietan heldu ziren. CEAR-Euskadin pertsona horiek hartzeko eta artatzeko konpromisoari eutsi diogu, gure lurraldean gizarteratzeko aukerak eskainita.

Horrekin batera, pandemian bizkorrago ebatzi dira asilo-espeditenteak, baina horietatik %5 eskas onartu dira. Ondorioz, pertsona askoren bideak etenda eta zaurgarritasun handiko egoeran geratu dira. CEAR-Euskadin bizkor erreakzionatu ahal izan dugu errealitate berri horri erantzuteko; hala, 2020ko azken hiruhilekoan gure harrera-baliabideen onuradun gehienak errealitate hori bizi zuten pertsonak eta familia-unitateak izan dira. Ildo horretan, gure zentroetako lantalde profesionalak ohi bezala lan egin dute inguruko erakunde eta sare sozialekin eta zerbitzu publikoekin koordinatuta, gure programen onuradunei erantzun egokienak emateko.

2020ko memoria

Harrera Programa

2020an, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako programa horren esparruan, **53 pertsona** artatu genituen: 17 emakume eta 36 gizon, gehienak Marokokoak. Egonaldiaren batez besteko iraupena 4 hilabetekoa izan da, baina aldakortasun handia egon da familia-unitatearen zaugarritasunaren eta osaeraren arabera.

53
pertsona
artatuak

68
pertsonari
eman zaie
arreta

Zuloaga Txiki Zentroa, Tolosa

2020an **68 pertsona** artatu ziren. Oro har, hartutako pertsonak nazioarteko babesaren edo apatridiaren eskatzaileak dira, eta gehienez ere 4 hilabetez egongo dira etxe honetan.


Jarraian doan koadroan aterpetxeak guztira eskaini dituen ostatu-egunak eta egonaldien batez bestekoa ageri dira.

Artatutako pertsonak	Egonaldiak guztira	Egonaldien batez bestekoa
68 pertsona	7.694 egun	113,15 egun

Sexuari dagokionez, aldea nabarmena da, gehienak gizonak baitira. Etxearen beraren egiturari erantzuten dio horrek, baita azpiegiturak behartuta gelak antolatzeke moduari ere.

Ireki zenetik, zentroak 12 nazionalitateko pertsonak hartu ditu; 2020an bederatzi nazionalitatera jaitsi da.

Artatutako pertsonak, sexuaren arabera bereizita




Egoiliaren nazionalitatea 2020an

- 1 Sierra Leona; Senegal; Mauritania; Mali; Guinea; Gambia; Albania
- 2 R.D Congo; Irak; Argelia; Angola
- 3 Guinea Conakry
- 5 Pakistán; Marruecos
- 6 Venezuela; Nicaragua
- 9 Colombia
- 19 Sahara occidental

Profil nagusia bakarrik dauden gizonena bada ere, 2020an zenbait familia artatu dira, eta kasu batean lau adingabek eta amak osatutako familia ugaria. Guztira, sei adingabe hartu dira urtean zehar.

Hurrengo grafikoak Zuloaga Txikin 2020an artatutako pertsonen adina islatzen du, adin tarteka.

2020an artatutako pertsonak adinaren arabera



Larraña Etxea zentroa, Oñati

Larraña Etxeak, 2020an, **204 pertsona** hartu ditu. %58 gizonak izan dira, eta %42 emakumeak. Lehenengo seihilekoan okupazioa askoz handiagoa izan da, 96 pertsonako pilaketekin, pandemiaren hilabete zailenekin bat etorritz. Irailetik aurrera bizkortu egin da asilo-eskaeren espedienteen ebazpena, eta ondorioz nabarmen jaitsi da egoiliarren

kopurua. Pertsona berrien sarrerak modu mailakatuagoan gertatu dira, nahiz eta, oro har, egoera bereziki zaugarrian dauden pertsonak izan.

Gizonen eta emakumeen ehunekoa gero eta orekatuagoa da; horrek adierazten du azken hilabeteetan profil-aldaketa izan dugula. Hasieran, Larrañan, profil nagusia Saharaz hegoaldeko Afrikako gizon gazteak ziren. Pixkanaka haurtxoak zituzten ama bakarrik eta familiak sartzen hasi ziren, eta horien

204
pertsona
artatuak



2020ko memoria

artean Latinoamerikako pertsonak, urteko une batzuetan profil nagusia izan direnak. Gaur egun, taldea heterogeneoagoa da; nazionalitate eta errealitate ezberdinak islatzen ditu, baita Espainiako lurraldera iristeko igarobide ezberdinak ere.

Egonaldien batez besteko aldia ia 6 hilabetekoa da, nahiz eta kasu batzuetan urtebetera arte luzatzen diren, zentroan bi aste bakarrik ematen duten pertsonen aldean, nahiz eta azken hori ez den oso ohikoa.

Guztira, 2020an:

Egoiliar kopurua	Egonaldiak guztira	Egonaldien batez bestekoa
204 pertsona	35.478 egun	173,91 egun

Adinak askotarikoak dira, baina 18 eta 40 urte artekoak dira nagusi (%40). Hona hemen jatorriak:

HERRIALDEA	PERTSONA KOPURUA
KOLONBIA	45
MENDEBALDEKO SAHARA	25
MAROKO	23
VENEZUELA	15
HONDURAS	11
NICARAGUA	8
NIGERIA	7
Bestelakoak	70
GUZTIRA	204



Inklusioa

Inklusio lantaldeak **457 migratzaile**, asilo-eskatzaile, errefuxiatu eta aberrigabe artatu zituen, eta arreta berezia eskaini zien osasun-arazoak zituzten pertsoneri; familiak, ama bakarrik, etxerik gabeko pertsonak, adinekoak eta zaugarritasun bereziko egoeran zeuden gazteak, baita sare publikoak planteatutako inklusio-ibilbidetik kanpo geratzen zirenak ere.

457
pertsona
artatuak

Artatutako pertsonen artean, honako zaugarritasun-egoera hauek nabarmentzen ditugu.

- **Ama bakarreko familiak eta bakarrik dauden emakumeak**, ezaugarri komun batzuk dituztenak: dokumentu-egoera, ostatu-arazoak, erroldatze-falta, babeserako sare sozial txikia edo hauskorra, migrazio joan-etorriaren ondorioz osasun mentala okertzea, lana eta familia uztartzeko zailtasunak, indarkeria matxista, etab. Baliabide gutxi daude emakume eta familia horiei arreta integrala emateko, are gehiago seme-alabak ardurapean badituzte. Batzuetan, egoera hori familia nuklear tradizionaletan ere gertatzen da, eta ez dute gizarte-baliabide publiko edo pribatuetarako sarbiderik.
- **Etxerik gabeko pertsonak**, batez ere gizon gazteak, eta batez ere oinarrizko premiak eta ostatua behar dituztenak.

Profil horiek eta beste batzuk dituzten pertsonekin, 2020an, aurrez aurreko **1.278 elkarrizketa** egin ditugu eta **45 pertsona berri** artatu ditugu.

Goihabe

138
pertsona
artatuak

2020an 138 pertsona artatu genituen, 74 gizon eta 64 emakume

Goihabe programa, Bizkaian, zaurgarritasun-egoeran dauden eta nazioarteko babesa eskatzen duten (erantzuna ebazteke, aldekoa edo ukatua) pertsonak gizarteratzeko ibilbideen jarraipena bermatzeko helburuarekin sortu da. Programa horretan, CEAR-Euskadik ez ezik, parte hartzen dute ere Cáritas, Cruz Roja, Fundación Ellacuría eta Fundación Lagungo erakundeek.

Gazte estrategia – Hemen programa

Hemen programa 2006. urtean sortu zen, inoren kargura ez dauden gazte atzerritarrak gizarteratzeko ibilbideei jarraipena emateko. Gazte horiek, adin-nagusitasuna bete eta adingabeen zentroetan tutoretzapean egon ondoren, ez zituzten baldintzak betetzen Bizkaiko Foru Aldundiaren emantzipazio-programetan parte hartzeko. Adin-nagusitasuna beteta, gazte horiek ez zuten laguntzarik jasotzen, eta, hala, eten egiten ziren haien gizarteratze-prozesuak. Inguruan sarerik izan gabe, etxegabe bihurtzen ziren edo behin-behinean hartzen zituzten aldi baterako udal-baliabideetan.

257
zaindutako
gazteak

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatua, Hemen programa CEAR-Euskadi buru duen erakundeen partzuergo baten kargura dago, eta bertan parte hartzen dute ere **Fundación Peñascal, Izangai Elkartea,**



Erbeste izan ginen, izan gaitezen babes



Ellacuría Fundazioa, Cáritas Bizkaia, Fundación Adsis eta Harribide Fundazioak. Gainera, Erain eta Margotu Elkartek erakunde laguntzaile gisa jarduten dute.

2020an, **257 gazteri** lagundu diegu, gazte bakoitzaren egoerara egokitutako esku-hartze ibilbide pertsonalizatuak garatzen.

Juridikoa

CEAR- Euskadiren lantalde juridikoak **nazioarteko babeserako 99 eskaera berritan esku hartu zuen, eta 868 pertsonari eman zien aholkularitza.**

Asiloa eskatu zuten pertsonen nazionalitate nagusiak: Kolonbia, Venezuela, Nikaragua eta Honduras.

Aholku Sarea

Gasteizen gauzatutako atzerritartasun programaren barruan, **480 pertsonak (228 emakume eta 252 gizon) egindako 567 kontsulta** egin ziren, atzerritartasun legeriarekin lotutako gaiei buruzkoak.

Familia-erreferenterik gabeko gazteak

Hemen programaren esparruan **54 atzerritartasun-espediente** izapidetu dira, hasierako baimenei eta bizileku- eta lan-baimenak berritzeari buruzkoak, nekazaritza-erregimena barne.

868
personas
asesoradas



Eraberean

CEAR-Euskadik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Eraberean sarearen (tratu berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea) kide den aldetik arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatik eta sexu-orientazio edo -identitateagatik eta genero-identitateagatik diskriminazioaren aurka borrokatzeko, 19 kasu berri artatu zituen 2020an. Horietatik hiru judizializatu dira.

Kasuen %26 etxebizitza eskuratzeko diskriminazioarekin lotuta egon dira, aurreko urteetan ikusi dugun bezala.

Nabarmentzekoa da, era berean, urteko azken hiruhilekoan hiru jarduketa egin ditugula banketxeen atzerriarrekiko jokabideek eragindako diskriminazio-gertakariekin zerikusia duten kasuengatik. Banku-prozedurak ez du kontuan hartzen Espainiako Estatuan berariaz aurreikusitako araudia, zeinak berresten duen pertsona orok duela eskubidea oinarrizko ordainketa-kontu bat izateko, ia edozein dokumentu-egoeratan.

Gainerako kasuak eskola-bullyinga, lan-diskriminazioa (belo islamikoa eramateagatik) edo jatorri afrikarreko oinezko bati egindako eraso fisikoa izan dira.

Biktimei arreta, aholkularitza eta laguntza emateaz gain, intzidentzia lantaldeak “Ausartak bai, baina nola?” **jardunaldien** hirugarren edizioa antolatu zuen azaroan.

CURSO BÁSICO
ONLINE
DINARRIZKO IKASTARDA

AZAROK 17
NOVIEMBRE
10:00-13:00

(AUSARTAK)

VALIENTES

AUSARTAK BAI, BAINA NOLA?
¿Tratari eta pertsona-eratu, arraza-, etnia-, edo nazio-jatorriagatik, sexu-orientazio edo genero-identitateagatik aurkako diskriminazioa. AZTERTZEKO SA SALATZEKO.

VALIENTES SÍ, PERO ¿CÓMO?
Iturriaren eta prozeduraren aurkako AURKARAZA eta DENUNZIALA. DISKRIMINAZIOA (por origen racial, etnia o nacional y por orientación sexual e identidad de género).

CEAR Euzkadi
ZEBITZE ZERBITZUAK: CEAR Euzkadi
OTTE-COOP Otebetea, Cruz Roja, Errorepetak, Gero Laster Oinez, Galtza, Kale Oze Nagikoa, Neoplen, SOS Racism eta Giza Eskubideak

INFO
euzkoaren-eraberean@cear-euzkadi.org
945 26 68 85

¿TUTIA DA ZURETAKO? INAZUN OTZUTIA
INSCRIPCIÓN PREVIA
www.babes.euzko.org

EUROPEAN UNION
EUROPEAN COMMISSION
Eraberean

Intzidentzia

Arrisku-egoeran dauden giza eskubideen defendatzaileak babes- tea

Bilera BBVArekin, Hidroituango urtegiak (Kolonbia) sortutako inpaktuengatik

2019an Ituango udalerrira (Antioquia, Kolonbia) egin genuen bisitan konpromisoa hartu genuen Hidroituango megaproiektu hidroelektrikoak jendartean eta ingurumenean eragindako inpaktuengatik desplazatutako nekazarien komunitateekin, Milena Flórez eta Genaro de Jesús Graciano laguntzeko (Ríos Vivos Antioquia Mugimenduko liderrak, errepresak kaltetutakoak eta Katalunia eta Madrilgo babes-programen onuradunak). BBVArekin bilera bat errazteko konpromisoa ere hartu genuen, proiektua finantzatu zuten Europako bankuetako bat baita. Euskal erakundeekin egindako intzidentzia politikoko lanari esker, lortu egin genuen hauek bitarteko izatea eta BBVAren arduradunek Milena Flórezi harrera egitea, baita Mugarik Gabe, OMAL – Paz con Dignidad, Mundubat eta CEAR-Euskadi euskal antolakundeei ere, Madrilgo egoitzan.

Bileran, nekazarien komunitateen aldarrikapenak helarazi ahal izan genituen, eragindako kalteengatik erantzukizunak hartzeari eta biktimentzako erreparazio politikak ezartzeari buruzkoak. Milena eta Genaro bezala, lurra, lurraldea eta bizimodu-eredu propioak defendatzen dituzten pertsonen aurkako liskarrak eta mehatxuak etetea ere eskatu genuen.

BBVAk Kolonbian duen ordezkariak konpromisoa hartu zuen lursailera bisita bat egiteko, Ríos Vivos Antioquiako eta kaltetutako komunitateetako ordezkariekin batera, inpaktuak zuzenean egiaztatzeko.

Gaur-gaurkoz, ez dute bisitarik egin.

Kolonbiatik eta Hondurasetik datozen giza eskubideen hiru defendatzaile harrera egitea Babeserako Euskal Programaren esparruan

2020ko otsailean, giza eskubideen alde egindako lanagatik arrisku-egoeran zeuden hiru pertsona iritsi ziren EAera, Eusko Jaurlaritzak eta Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako Euskadiko Babes Programaren esparruan:

Giza eskubideen
3
defendatzaile harrera
egin zaie

- **Paola Andrea Ararat Nazarit, Kolonbiako ACONC (Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca) elkarteko kidea:** Lurraren, lurraldearen eta beltzen eskubide etniko eta kolektiboen defendatzailea. Giza eskubideen, lurralde- eta etnia-eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arloko hezitzailea da, salaketak jasotzen ditu, alertak edo jakinarazpenak ematen ditu eta Cauca Iparraldeko Herri Beltzeko kideen mehatxuei edo arriskuei buruzko arreta-ibilbideak eraikitzen eta aktibatzen parte hartzen du. Elkarrizketa guneetan parte hartzen du Gobernu Nazionalarekin eta, horrez gain, emakume-taldeko koordinatzailea da.
- **Lider indigena senú-a, Kolonbiako OIA (Organización Indígena de Antioquia):** Herri indigenen, lurraren, lurraldearen eta Omagá komunitatearen (Cáceresko udalerria, Antioquiako Behe Cauca azpieskualdea) ondasun komunen eskubideen defendatzailea da. 2010ean Cacique Mayor delako izendatu zuten, 2014an Kabilo Nagusiaren kontseilari, eta 2016an 10 komunitate indigenen ordezkari izan zen Biktimen Udal Mahaian, Lurralde Plangintzaren Kontseiluan eta Bakearen Udal Kontseiluan. Guardianes del Río Cauca-ren parte da, Hidroituango megaproiektuak kaltetutako senú komunitateen ordezkari gisa, eta Caminantes del Territorio kolektiboan parte hartzen du, bere eskualdeko giza eskubideen liderren autobabeserako ekimenean.
- **Néstor Hernández, Honduras Diversa elkarte:** LGTBIQ+ pertsonen giza eskubideen defendatzailea da. Hondurasko ordezkaria da Red Gay Latino Joven sarean, koordinatzaileordea Plataforma Juvenil por la Salud Mental en Centro América erakundearen, eta 2019an MACCIH eta UFECIC babesteko sortutako Comisión juvenil contra la Corrupción (CJC) erakundearen koordinatzailea. Comisión Multipartidaria Contra la Corrupción e Impunidad en Honduras erakundearen ordezkarietako bat ere bada, gizarte zibileko erakundeak, alderdi politikoak, enpresa pribatuak eta

2020ko memoria

mugimendu sozialak biltzen dituen. Horrez gain aktibista komunitarioa da Santa Lucía udalerrian, ingurumenarekin lotutako gaietan. [Néstor Hernándezen lekukotza hemen.](#)

Emigrad@s sin Fronteras, Mugarik Gabe eta Aldarteren eskutik, hiru defendatzaileak EAera iritsi ziren fisikoki eta emozionalki indartzeko eta nazioarteko laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko agenda politiko bat garatzeko, beren lurraldeetara segurtasun eta babes handiagoko baldintzetan itzultzeko.

Martxoaren 13an COVID-19aren osasun-krisialdia zela eta alarma-egoera ezarri zenean eta horren ondoriozko konfinamenduan, jarduerak berregokitu eta moldatu egin ziren, programaren helburua lortzen laguntzeko eta erdigunean jartzeko babestutako defendatzaileen ongizatea. Hala, jarduera asko presentzialtasunetik birtualtasunera igaro ziren, eta programaren koordinazioak indartu egin zituen defendatzaileen laguntza psikoterapeutikoa eta jarraipena; izan ere, eguneroko arriskuagatik eta mehatxuengatik defendatzaileek metatzen duten eragin fisiko eta emozionalari gehitu egin behar zitzaion ziurgabetasuna, frustrazioa eta pandemia beren familia eta komunitateengandik urrun bizitzeak eragindako beldurra, non, egoera horrek, gainera, indarkeria areagotu egin duen.

Nazioarteko mugikortasunaren mugak direla-eta, bertan behera utzi behar izan zen Eusko Jaurlaritzako, Eusko Legebiltzarreko eta giza eskubideen aldeko euskal erakundeetako ordezkariak osatutako euskal ordezkariak urtero egiten duen jarraipen-misioa. Osasun-baldintzek ahalbidetzen dutenean egingo da.



Giza Eskubideak Kolonbian: Diputatuen Kongresuko Kanpo Arazoetako bozeramaileekin elkarrizketa

Otsailean bira politikoa egin genuen Madrilen, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Kontseiluaren 43. saioaren harira, eta Kolonbiako egoerari buruzko bi txostenenaurkezpenabaliatuta (Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren —OHCHR— bulegoaren Urteko Txostena eta Nazio Batuen defendatzaileen errelatore bereziak Kolonbiara egindako bisitaren txostena).

PBIrekin (Peace Brigades International – Nazioarteko Bake Brigadak) eta Paola Andrea Ararat Nazarit ACONCeko defendatzaile afrokolonbiarrarekin (Euskadiko Babes Programan dagoena) koordinatuta, bilera batzuk egin genituen Madrilgo Diputatuen Kongresuko kanpo arazoetako bozeramaileekin (EH Bildu, EAJ, ERC, Ahal Dugu-IU), baita Espainiako Kanpo Gaietako eta Lankidetzako Ministerioaren Giza Eskubideen Bulegoarekin (ODH) ere; helburua zen Espainiako Gobernuak bi txostenei babes ematea. Izan ere, txosten horietan adierazten da herrialdean krisi humanitario larria izan dela eta izugarri areagotu direla giza eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeriak, Kolonbiako Gobernuak eta FARC-Epek 2016an bake-akordioak sinatu zituzten arren.

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Espainiako Estatuko Programen adierazpen bateratua

COVID-19aren osasun-krisiaren kudeaketa politikoaren ondorioz hainbat eskualde eta herrialdetan indarkeriak areagotu direla ikusita, babes-programak garatzen ditugun antolakunde eta instituzio publikoek, salaketa publikoa egiteko eta egoera hori arintzeko premiazko neurriak eskatzeko, adierazpen bateratu bat igorri genuen apirilean.

[Hemen](#) irakur dezakezu adierazpena

2020ko memoria

Naiz hedabideko iritzi artikulua

Kolonbiako Bajo Cauca Antioqueño eskualdeko (Kolonbia) senú herri indigenaren (programan hartutako defendatzaileetako baten komunitatea) egoera ikusarazteko eta salatzeko, Mugarik Gabe eta CEAR-Euskadi erakundeek iritzi-artikulu bat idatzi genuen, eta uztailean argitaratu zen, Naiz hedabidean.

Artikulua [hemen](#) irakurri dezakezu.

Ziklo birtuala: “El desgobierno del aprendiz, autoritarismo, guerra y pandemia” (Kolonbia)

Kolektiba Colombia-tik, Espainiako Estatuan Kolonbiarekiko elkartasuna lantzen duten 15 plataforma eta erakunde baino gehiagorekin koordinatuta, mintegi-ziklo bat antolatu genuen urrian, *El desgobierno del aprendiz, autoritarismo, guerra y pandemia* izeneko txostena aurkezteko; txostenak Iván Duque Markezen bigarren gobernu-urtearen balantzea lantzen du.

Txostenaren lanketan parte hartu zuten Alianza de Organizaciones Sociales y Afines plataformak, Plataforma Colombiana de Derechos Humanos Democracia y Desarrollo plataformak eta Coordinación Colombia Europa Estados Unidos koordinazioak. Plataforma horiek giza eskubideen aldeko 500 antolakunde sozial baino gehiago biltzen dituzte, emakumeek, indigenek, nekazariak, biktimenak, afrikar ondorengoenak, sindikalak, gazteak, kulturalak, LGBTIQ+ antokundeak eta ingurumenaren aldekoak, besteak beste.

“Bizitzeko ihes egin. Krimen antolatuaren aurrean babesteko aliantzak erakitz” kongresu birtualaren antolakuntza

Abenduaren 1ean, 2an eta 3an, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, gure lehen kongresu birtuala antolatu genuen. Izen-emateak agortu egin ziren, 200 pertsona baino gehiago inskribatuta. Bertan, Hondurasko, El Salvadorreko, Mexikoko eta Espainiako Estatuko ikerlari, kazetari eta giza eskubideen defendatzaileekin analisi eta proposamenak

Más de
200
inscripciones



partekatzeko aukera izan genuen, El Salvador eta Hondurasko herritarrak desplazatzen dituzten krimen antolatuaren indarkeriei buruz, Mexikoko joan-etorriei buruz eta nazioarteko babesa lortzeko gainditu behar dituzten oztopoei buruz. Krimen antolatuaren indarkeriek asmo eredugarria dutela aztertu genuen, izua erabiltzen baitute herritarrak kontrolpean mantentzeko. Mara delakoez aritu ginen, baina baita narkotrafiko-kartelez edo eragile estatal, paraestatal eta enpresen sikarioez ere. Heteropatriarkatuarekin duten loturari ere heldu genion; botere-egitura oso matxistak dira, eta, ondorioz, indarkeria bereziki ankerra gauzatzen

dute zaugarriagoak direla uste duten pertsonen edo kolektiboen aurka, hala nola emakumeen edo LGTBIQ+ pertsonen aurka.

Errealitate horren ondorioz, 2017 eta 2018 artean, El Salvador asilo eskatzaile berrien seigarren jatorrizko herrialdea izan zen munduan, eta Honduras, zortzigarrena. 2019. urtean, Honduras izan zen Espainiako Estatuan babesa gehien bilatu zuten pertsonen jatorrizko hirugarren herrialdea. El Salvador bosgarrena izan zen.

Kongresuan parte hartu zuten, besteak beste, Erdialdeko Amerikako Amen Karabana, COMCAVIS Trans El Salvador, COFADEH, IM-Defentsak, Fray Matías Giza Eskubideen Zentroa (Cordova), Radio Progreso eta El Faro egunkari digitalak. Borrokarako, erresistentziarako eta giza eskubideen defentsarako estrategiak partekatu zituzten, hain bortitza den testuinguru horri aurre egiteko.

Biltzarra baino egun batzuk lehenago, “**Historias con mucho peso - Bizitza Soinean**” kanpaina egin genuen, El



2020ko memoria

Salvadorren eta Hondurasen krimen antolatua indarkerietatik ihes egiten duten LGTBIQ+ pertsonengan zentratuta. Sare sozialetara bideratu genuen kanpaina; elementu nagusia emakume trans batek protagonizatutako spot bat izan zen, zeina, bere herrialdeko pandillek mehatxatuta, EAEn babes bila ari zen. [Spota HEMEN ikus dezakezu.](#)

María en tierra de nadie dokumentalaren emanaldia ere egin genuen Gasteizen eta Bilbon, Ongi Etorri Errefuxiatuak Araba eta Bizkaiaren eskutik, hurrenez hurren. Ondoren, mahai-inguru bat egin genuen zuzendariarekin, Marcela Zamora salvadortarrarekin, bideodei bidez. Jarduera bera online gauzatu zen Hotz Oñatirekin, oraingoan Oñatiko ehun sozialari zuzenduta.



Intzidentzia politikoko estrategietan indartuz

Azaroaren 3an eta 4an bi prestakuntza birtual antolatu genituen, krimen antolatua indarkerien aurrean giza eskubideak defendatzeko kabildeo-tresnei buruzkoak. Prestakuntzan parte hartu zuten garapenerako lankidetzaren, nazioarteko babesaren eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen defentsaren arloetako hainbat euskal antolakundek. Horretarako, Vicente Vallies izan genuen, zeina aditua den testuinguruaren analisi-metodologietan eta prebentziorako eta babes integralerako estrategien eraikuntzan, baita nazioarteko intzidentzian ere.



Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak. Hegoaldeko Mugaren analisi feminista.

Aurten, *Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak. Hegoaldeko Mugaren analisi feminista* ikerketa-txostena argitaratu

dugu, intzidentzia eta partaidetza sozialeko lantaldeak egina, Amanda Andrades Gonzálezen eta Itziar Gandarias Goikoetxearen elkarlanarekin. Txostenaren helburua da aztertzea zer eragin duen Hegoaldeko Mugaren militarizazio- eta esternalizazio-prozesuak muga hori gurutzatzen saiatzen diren emakumeen bizitzetan. Horretarako, Ceutan, Melillan eta Marokon migratzaileei eta errefuxiatuei laguntzen eta intzidentzian lan egiten duten berrogei antolakunde baino gehiagoren ekarpenak eta hausnarketak jaso dira.

Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea

Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea liburu ilustratua zabaldu genuen; Saharaz hegoaldeko Afrikako bost emakumek Espainiako hegoaldeko muga gurutzatzeko egiten dituzten ahaleginei buruzko bost kontakizun biltzen ditu. Amanda Andradesek idatzitako eta Amelia Celayak ilustratutako kontakizunek erresistentziaz eta bizitzaz hitz egiten digute. Hainbat indarkeria-testuingurutatik ihesi, Hegoaldeko Muga gurutzatzen saiatzen diren arte hesi erreal zein sinbolikoz betetako bide luze bati ekiten dioten bost emakumeren erabakitasuna kontatzen dute. Horietako lauk lortu dute, eta gaur egun gure auzokideak dira; beste bat Marokon dago oraindik, BOZA lortzearekin amesten.



Egia Argitzeko, Elkarbizitzarako eta Errepikapen Ezerako Batzordeak (Kolonbia)

Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioak zenbait mekanismo eta neurri sortu zituen gatazkaren biktimei erantzun integrala emateko. Horien artean, Egiaren Batzordearen helburua da gatazka armatuaren esparruan gertatutakoaren egia ezagutzea, gatazka horretan egindako eskubide-urraketak eta arau-hausteak argitzen laguntzea, eta horien konplexutasunaren azalpen zabala jendarte osoari helaraztea.

2020ko memoria

Gatazkaren kontakizuna eraikitzeko orduan erbestea kontuan hartu duen lehen bake-prozesua da. Hala, herrialdetik kanpoko errefuxiatuek gertatutakoa argitzen lagundu ahal izan dute, beren lekukotasunen bidez.

CEAR-Euskadik prozesu horretan parte hartu du, eta Kolonbiako erbestealdiari buruzko informazio kuantitatiboa eman du (asiloa eskatu duten pertsonen kopurua, emandako eta ukatutako nazioarteko babeseko estatutuak). Halaber, lekukotasuna eman nahi zuten Kolonbiako errefuxiatuen arteko harremana erraztu du, eta elkarrizketak egin ditu erbestealdi iraunkorreko (asiloa) eta aldi baterako erbestealdiko (Euskadiko Babes Programa) prozesuak lagundu dituzten antolakuntzako pertsonekin.

Parte-hartze soziala


COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, berriz definitu behar izan ziren parte-hartze sozialeko ekintzak.

Ekintza boluntarioa osasun-larrialdian

245
parte
hartzeko
eskaerak

Osasun-egoera gorabehera, entitateak **245 eskaera** kudeatu zituen urtean zehar.

Etxeko konfinamendua deklaratu zenean, erakundeak, prebentiboki, parte-hartze ekintza guztiak eten zituen. Hiru lurralde historikoetako parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako agentzien bitartez, lan egiteko modu tradizionalen bestelako aukerak aztertu eta aurkezteko guneak sortu ziren, eta lan birtuala sustatu zen. Posible zen kasuetan, boluntarioek modu birtualean egin zuten beren lana. Egokitzapen hori nahiko erraza izan zen




ikerketa- eta administrazio-prozesuetan, baina laguntza-prozesuetan zailagoa izan zen. Hala, hizkuntza-bikoteak sustatu ziren, baita gizarte- eta prestakuntza-arloko laguntzak ere, bideodeien bidez. Irailetik aurrera, jarduera presentzialei berriz ekin zitzaizen, kontuan hartuta egoerek eskatzen zituzten osasun-neurriak.

Parte-hartze sozialeko online jardunaldiak

Osasun-egoera gorabehera, jardunaldiak modu birtualean egin ziren. Erakundearen egiten diren ekintza komunitarioak aurkeztu ziren, dekolonialitateari eta arrazializatutako pertsonen tutoretzari buruz eztabaidatu zen, eta gorputz-adierazpeneko jarduera batekin amaitu zen. Jardunaldian 37 pertsonak hartu zuten parte, eta gai horietako bi emakume arrazializatuak dinamizatu zituzten.

Errefuxiatuen nazioarteko eguneko mobilizazioak

Ekainaren 20an, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean, “Izan gaitezen babesleku: harrera, erregularizazioa, eskubideak eta bizikidetzeta” lelopean, mobilizazioak egin ziren Donostian, Bilbon eta Gasteizen, eta **1.000 pertsona** baino gehiago bertaratu ziren. Ekimenaren buru den aldetik, kale-ekitaldietan parte hartzeaz gain, CEAR-Euskadik prestaketa-bilerak dinamizatu zituen, mobilizazioetako bozeramaile lana bete zuen, komunikazio publikoa kudeatu zuen eta bi hitzaldi paralelotan parte hartu zuen; hitzaldi horietan, osasun-pandemiaren aurrean errefuxiatuek duten egoeraz eta LGTBIQ+ kolektiboaren nazioarteko babesaz hitz egin zen.



2020ko memoria

Emakume migratzaile eta errefuxiatuentzako jabekuntza tailerrak

Tailer horien helburua zen CEAREk ardatutako emakume errefuxiatuentzako gune seguru bat sortzea, harremanak ehundu zituzten eta emakume atzerritar gisa pairatzen dituzten desparekotasunen aurka borrokatzeko mekanismoak sor zituzten.

Bilbon 6 tailer egin ziren, eta 9 pertsonak parte hartu zuten; ez zuten ildo nagusirik izan, parte-hartzaileek beraiek erabaki zuten gaia eta dinamika.



CONVERSATORIO
HIZKETALDI

**LAS LUCHAS DE LAS
MUJERES EN ÁFRICA**

Dinamizadora / Dinamizatzaile
ÁNGELA NZAMBI

20 DE OCTUBRE / URRIAREN 20A
16:00-18:00
SORGINENEA:
SANTA MARÍA 11
VITORIA-GASTEIZ

Inscripción e información
Izen-ematea eta informazioa
i.ramirezdeolano@cear-euskadi.org
688 80 24 09

Donostian 5 tailer egin ziren, eta 9 pertsonak hartu zuten parte. Kasu horretan, emakumeak josteko eta ehuntzeko elkar-tu ziren, harremanak sortzeko.

Gasteizen topaketa bat egin zen Manuel Iradier Elkarte Afrikanistarekin eta Sorginenearekin, Valentziako CEAR elkarteko Angela Nzambi kideak dinamizatuta. Jarduera horretan 12 emakumek parte hartu zuten, bai errefuxiatuek eta migratuek, bai bertakoek.

Kulturarteko elkarbizitza

El IncenDiario

Gorrotoaren diskurtsoak arrazakeria, xenofobia eta diskriminazioaren sua piztu eta gure herri eta hirietan bizikidetzaren ipintzen duten erregaiak dira. CEAR-Euskaditik urteak daramatzagu gaiaren inguruan gogoeta eginez eta erretzen duten diskurtso horiei aurre egiteko herritarrentzako tresnak garatzen. *El IncenDiario* dokumentalak diskurtso politiko xenofoboak aztertzen ditu, eta horiei aurre egiteko tresnak eskaintzen ditu: [Ikusi bideoa](#).



Ehungailua. Landa-eremuan Zurrumurruen Aurkako Estrategiak ehuntzeko apunteak eta puntadak

Ehungailua gida bat da, landa-eremuetan Zurrumurruen Aurkako Estrategiak ezartzeko tresna gisa diseinatu duguna. Araban zurrumurruen aurkako eragileen sareak dinamizatzen urte asko eman ondoren, *Ehungailua*-ren asmoa da gako batzuk ematea, gure esperientziatik abiatuta, oro har landa-inguruneetako administrazioei, entitate sozialei (publikoak zein pribatuak), elkarteei eta komunitateei, begirada feminista duen eta aurreiritzi xenofoboak desmuntatzeko ikuspegitik, kulturarteko bizikidetzaren eraikitzearen garapen komunitarioko prozesu bat abiarazteko.

2020ko memoria

Arabako landa-eremuan dugun esperientzia, jatorria, hazkundera eta planteatutako metodologia jasotzen ditu *Ehungailuak*. Estrategian inplikaturako eragile guztiak eta landa-eremuan “ehuntzeko” gakoak balioesten ditu, oinarri hartuta zurrumurruen aurkako esperientzia eta tresnak, horiek gauzatzeko materialak, eta baita lurraldean kulturarteko bizikidetza ahalbidetzen duten iruleen lehen pertsonako istorioak ere.


Gidaliburua Lehendakaritzaren Giza Eskubide eta Biktima Zuzendaritzak finantzatu du, eta [hemen](#).

Zurrumurruen Aurkako Estrategia Araban

Zurrumurruen Aurkako Estrategia dinamizatzen jarraitu dugu Araban, kulturarteko bizikidetza sustatzeko tresna gisa.

Pandemia-egoeraren aurrean estrategia berrasmatu egin da, eta online nahiz aurrez aurreko programazioa diseinatu da. Online jarduerarako, **#del21al21** kanpaina diseinatu zen, bizikidetzari eta kulturartekotasunari buruzko eduki berri eta positiboak sortu eta sareetan zabaltzeko. Horretarako, ideia bat baliatu zen: arrazakeriatik aniztasunera igarotzea lortzea da elkarbizitza. Bide sinboliko hori urratu genuen martxoaren 21etik, **Arraza Diskriminazioaren Aurkako Nazioarteko Egunetik**, maiatzaren 21erantz, **Elkarrizketa eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Egunera**, eta bidean irailaren 21etik ere pasatu ginen, Bakearen Nazioarteko Egunetik, alegia.

Bide hori eragile sarearekin batera eraiki zen, eta kulturarteko bizikidetzari lotutako baliabideen online liburutegi bat sortu zen. Horretarako, eragileek partekatutako proposamenak bildu ziren: liburuak, ipuinak, zinema, poesia, musika eta abar, eta gure herrietako bizilagunen arteko bizikidetzari buruz mezu positiboa helarazi zuten.






#del21al21 kanpainarekin batera, hitzaldiak, zine-forumak, teknikari eta politikarientzako prestakuntzak eta kaleko ekintzak eta mobilizazioak egin ziren. Horren adibide da erakusleihotarako egindako proiektua “Ez, Elvis ez dago bizirik eta atzerritarrak ez dira Ness lakuko munstroa”, Agurainen eta Arraia-Maetzun egindako sormen-proiektua da, non erakusleihok, dekoratu baten bidez, mezuak helarazten zituzten, herritarrak ez daitezen “korapilatu” sareetan dabilzan buloetan eta atzeritarrei buruzko eguneroko elkarrizketetan.

Bizilagunetgia. Aldameneko errezetak. Ezagutzeko, partekatzeko eta (elkar)bizitzeko errezetak

“Bizilagunak” ekimena Arabako Foru Aldundiak, CEAR-Euskadik eta Arabako landa-eremuko zurrumurruen aurkako eragileen sareek antolatu dute. Helburua aurrez elkar ezagutzen ez duten eta kultura ezberdinetatik datozen familiak elkartzea da, igandeko bazkari batean elkar ezagutu eta haien arteko adiskidetasuna piztu dadin.

laz familiak berriro ere elkartzea pentsatzen hasi zirenean, pandemiak eta osasun krisiak eragotzi egin zuten aurrez aurreko otorduak antolatzea. Hala ere, geure burua berrasmatu eta nahasteko gogoari eutsiz, “Bizilagunetgia: aldameneko errezetak” asmatu genuen, “Bizilagunak” ekimena omentzeko eta kultura-aniztasunak aberastu egiten gaituela, harro gaudela eta dastatzen jarraitu nahi dugula ospatzen jarraitzeko.

Esku asko idatzi dituzte errezetak: Agurain, Amurrio, Araia, Artziniega, Arraia-Maetzu, Audio eta Kanpezuko bizilagunek, hain zuzen ere.



Marketinga

Bilbao Refugio birtuala

Osasun krisia dela eta, uztailean formatu **BIRTUALA** antolatu genuen Bilbao Refugio lasterketa. Guztira, 5.494 km egin zituzten parte-hartzaile guztiek, errefuxiatuen egoera ikusarazteko.

“Erbeste izan ginen, izan gaitezen babes” kanpaina digitala

Gabonetan berriro aktibatu genuen “Erbeste izan ginen. Izan gaitezen babes” kanpaina, zeinak gerra zibilaren eta Fran-



EXILIO

Ana Mary

Su madre fue Cecilia G. de Guilarte, periodista y una de las primeras corresponsales de guerra tras el estallido de la Guerra Civil. Sus escritos y reportajes le convirtieron en una figura destacada del exilio vasco.

LEER HISTORIA

coren diktaturaren garaiko euskal erbesteratzearen bi istorio eta egungo errefuxiatuen beste bi istorio ikusarazten dituen. Gauza asko dituzte komunean: jazarpena, ihesa, igarobidea, harrera, beldur sentimenduak, deserrotzea, nostalgia eta itxaropena, besteak beste. Kanpainaren helburua errefuxiatuek bizi dituzten egoerekiko empatia da. Horrez gain, CEAR-Euskadirekiko inplikazio ekonomikoa ere bilatzen du.

Komunikazioa

2020an, honako emaitza hauek lortu genituen komunikazioari dagokionez:

Offline bitartekoak:

Erregistratutako 260 inpaktu, horietatik:

- 49 irratan
- 7 telebistan
- 86 prentsan
- 102 Interneten

Online bitartekoak:

- 4.631 jarraitzaile **Facebook**en
- 2.309 jarraitzaile **Twitter**ren
- 221 harpidetza **Youtuben**
- 1.248 jarraitzaile **Instagram**en
- 62.633 erabiltzaile urtean CEAR-Euskadiren webgunean, eta 135.132 bisita orrialdeetan

Prentsurrekoa ekainaren 20an, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean

Egunaren bezperan, jada ohikoa den gure prentsurrekoa egin genuen, errefuxiatuek munduan, Europan, Espainiako Estatuan eta EAEn bizi duten egoera ikusarazteko. Konfinamenduaren ondorengo lehen ekitaldi publikoa izan zenez, modalitate mistoa aukeratu genuen: presentziala eta streaming bidezkoa. 9 euskal hedabidek jaso zuten ekitaldia, eta uztailaren 12an egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan jarri



2020ko memoria

zen arreta. EAEn bizi diren migratzaileen, aberrigabeen eta errefuxiatuen eskubideak bermatzeko hainbat neurri martxan jartzeko eskatu genion Legebiltzar berriari eta haren ondoriozko Gobernuari. Baita COVID-19aren krisiari aurre egiteko garatuko ziren etorkizuneko plan ekonomiko eta sozialetan kolektibo horren behar espezifikoer erantzuteko ere.

Aurten egindako bideoetako batzuk:

Mugak gurutzatzen dituzten emakumeak

Afrika beltzeko emakume batek 4.000 km ibiltzen ditu gutxienez Espainiako Estatuko hegoaldeko mugatik Europara iristeko. Lege hutsuneak eta desagertzen ugariak direla eta, ezinezkoa da jakitea zenbat emakume egiten duten joan-etorri hori urtero. Horietako askok miseriatik eta indarkeria egoeretatik ihes egiten dute: derrigorrezko ezkontzak, genitalen mutilazioa, indarkeria matxista edo gatazka armatuak. Beste batzuek bizitza duinagoa bilatzen dute, horrela, geratzen den familiari lagundu ahal izateko. Guztiak daude helmuga segurura iristeko irrikan [“Mugak gurutzatzen dituzten emakumeak bideoan kontatzen dizugu: IKUSI BIDEOA.”](#)

Volver a empezar, por segunda vez

Asteasuko Udalaren laguntzari esker, bideo honen bidez ikusi ahal izan genuen zer eragin izan duen asilo eskatzaile den eta Tolosan bizi den Kolonbiako familia batentzat COVID-19aren egoera hemen bizitzeak, eta zer ondorio izan dituen haien bizitzetan enpleguaren arloan. Erika eta Eduardo dira, eta honako hau da haien istorioa: [IKUSI BIDEOA.](#)



Fabián eta Kimoraren istorioak

“Bizitzak soinean”, kanpainaren baitan, Fabián eta Kimorak, biak ala biak Hondurasko asilo-eskatzaileak eta sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin lotutako jazarpena pairatzen dutenak, kontatu egin ziguten zergatik egin behar izan zuten ihes eta EAEn nola sentitu diren.

[IKUSI Fabiánen bideoa.](#)

[IKUSI Kimoraren bideoa.](#)

Erbeste izan ginen, izan gaitzen babes

CEAR/Curruscu



CEAR/Curruscu

Bilbo

Arreta Bulegoa:
Baiona kalea 1-3
48012
Tel: 944 248 844

Bilbo

Intzidentzia
eta Kudeaketa
Cristo kalea 9 Bis, 5º
48007
Tel: 94 424 8844

Vitoria-Gasteiz

Aldabe kalea 7
01012
Tel: 945 266 805

Oñati

Larraña Etxea zentroa
943 009 049

Tolosa

Zuloaga Txiki zentroa
688642538

CEAR

EUSKADI

Comisión de **Ayuda**
al **Refugiado** en Euskadi

Jarrai gaitzazu sarean:



www.pear-euskadi.org